

Fiskalizazio Txostena
Informe de Fiscalización

Berroeta Aldamar, SMren

Berroeta Aldamar, SL

2005-2007



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. SARRERA.....	5
II. IRITZIA.....	7
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	7
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
IV. URTEKO KONTUAK 2005-2007	14

I. INTRODUCCIÓN.....	15
II. OPINIÓN.....	17
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	17
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales	19
III. CONSIDERACIONES SOBRE SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	21
IV. CUENTAS ANUALES 2005-2007	24

ANEXOS

A.1 Inmovilizado material.....	25
A.2 Ingresos a distribuir en varios ejercicios	27
A.3 Deudores.....	28
A.4 Fondos propios	29
A.5 Acreedores a corto plazo	29
A.6 Inversiones financieras temporales	30
A.7 Gastos	30
A.8 Contratos adjudicados por la Fundación	30
A.9 Contratos adjudicados por la Sociedad	32

ALEGAZIOAK.....	33
ALEGACIONES	39





I. SARRERA

Berroeta Aldamar, SLren (aurrerantzean, Sozietatea) 2005, 2006 eta 2007ko ekitaldietako ekonomia-finantza jardueraren gaineko txosten hau Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/88 Legeari jarraiki mamitu da eta Eusko Legebiltzarreko Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lanerako Programan barne hartua dago.

Sozietatea 2005eko apirilaren 14an eratu zen 3.300 euroko kapital sozialarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak (GFA), Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak (aurrerantzean EAE) eta Getariako Udalak kopuru berarekin harpidetua.

Xede soziala Getariako Hiribilduaren Planeamenduko Arau Subsidiarioen 7. Sektorean barne hartutako Aldamar Jauregia izeneko lursailetan higiezinak sustatu eta kokatutako edo kokatuko diren eraikinak zaharberritu, ordezkatu, zaindu eta mantentzeko eta hori guztia Cristóbal Balenciaga Fundazioa Museoa instalatu eta kokatzeari begira.

Sozietatearen iraupen aldia Aldamar Jauregia eta etxaguntzako eraikinen doako lagapenaren Administrazio-emakidak duen epea da. Lagapen hau Getariako Udalaren Osokoak 2005eko azaroaren 3ko eta 2006ko apirilaren 25eko bilkuretan erabaki zuen, hasiera batean 2029ko abenduaren 22ra bitartera arte luzatuko zena eta guztien adostasunez luzagarria eta inola ere ezingo zelarik 2078ko maiatzaren 5a baino areago luzatu, “Balenciaga Museoren” egoitza iraunkorra izan dadin.

Cristóbal Balenciaga Museoa sortzeko ekimenak 1999an hasi ziren eta 1999ko urriaren 7an Cristóbal Balenciaga Fundazioa sortu zen, banakako izaeradun hainbat ugazabak eta bi erakunde publikok osatutakoa: Kultura Ministerioak eta Getariako Udalak. Museoa eraikitzeko ekimena proiektu bat abiaburu hartuta bi fasetan gauzatu zen, Hemen Art SLU enpresak aurkeztu zuena. Lehenengo faseak 2000ko urtetik 2002ra bitarteko aldia barne hartzen du eta Berroeta-Aldamar Jauregiaren birmoldaketa eta zaharberritzea du helburu.. 2004ko uztailan Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialean bigarren atalari zegokion oinarritzko proiektua aurkeztu zen, Jauregiari itsatsitako eraikin berria eraikitzea xede zuena.

2005eko apirilaren 14an Sozietatea sortzeaz batera Fundazioaren Lehendakariorde exekutibo zena izendatu zuten bertako gerente.

Sozietatearen Administrazio Kontseilua lehenengoz 2005eko azaroaren 7an elkartu zen eta Fundazioak hitzartutako indarrean zeuden kontratu eta esleipenak bere egingo zituztela erabaki zuten, Museoren bigarren atalaren eraikuntzarekin lotutakoak.

2007ko martxoan Sozietateko Gerentearen dimisioa onartu zen eta urte bereko azaroan Fundazioak eta Sozietateak salaketa aurkeztu zuten haren aurka Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzaren aurrean.

Horren ondorioz, 2008ko apirilaren 18an Eusko Legebiltzarren osokoak ikerketarako batzorde berezia sortzea onetsi zuen, etorkizuneko Balenciaga Museoren inguruan azaleratutako irregulartasunak ikertzearren. 2008ko abenduaren 22ko Osokoak batzordeak aurkeztutako irizpena onetsi zuen.



Lanaren mamiak ondotik adierazitako alderdien azterketa besarkatu du, soil-soilik Berroeta Aldamar, SL sozietateari buruzkoak:

- Legezkoak: Ezargarria den arautegia betetzea, bai ondasun eta zerbitzuak erosteko administrazioko kontratazioan, bai jasotako diru-laguntzetan ere.
- Kontularitzakoak: Sozietateak aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioekin bat datorrela.
- Kudeaketaren alderdiak: nahiz lanaren zabalak ez duen gastu publikoaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik barne hartzen, horren inguruan azaleratu diren ez-betetzeak berariazko atal batean deskribatu dira, horiek hobetzeko gomendioekin batera.

Lana egiteko sozietatearen 2007ko ekitaldiko urteko kontuen auditoria txostena eskuratu dugu, auditoria enpresa pribatu batek egindakoa, txosten horren euskarri diren lan-paperak aztertu eta beharrezko iritzitako auditoria proba osagarriak gauzatu ditugu.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

1. Sozietateak 2007ko azaroaren 27an Cristóbal Balenciaga Fundazioarekin batera salaketa aurkeztu zuen Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko fiskaltzaren aurrean, sortu zenetik 2007ko martxoaren 8ra Sozietatearen Gerente eta 1999tik 2007ra arte Fundazioaren Lehendakariorde izan zenaren aurka, 2001 eta 2005 bitartean egindako hainbat jarduera zirela eta (gauzatu gabeko lanengatik ordainketak, manipulaturako fakturak...), eta Hemen Art, SLUko ahaldun eta akziodun bakarrarekin lotuak, Fundazioak Museoaren eraikuntzaren diseinua eta barne-diseinuaren proiektua idazteko kontratatutako sozietatea.

Fiskaltzak 2008ko azaroaren 3an kereila aurkeztu zuen Sozietatearen Gerentearen aurka, Hemen Art, SLUren jabearen aurka eta “Exekuzio proiektuaren garapen, jarraipen eta kontrola” kontratuaren esleipen hartzailearen aurka, administrazio desleial, bidegabeko jabetze, dokumentuak faltsutze, delitu sozietario, intrusismo eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen ustezko delituengatik. Kereila hori izapidetzeko onartu zuen 2008ko azaroaren 17an Azpeitiko 1 zk.ko instrukzioko epaitegiak.

Berroeta Aldamar, SL Sozietateak 2005 eta 2007 bitartean zerbitzu-sari kontzeptuan 626 mila euro ordaindu dizkio (BEZ barne) arestian aipatutako enpresa eta esleipen hartzaileari (ikus A,1).

2. Nahiz Sozietatea 2005eko apirilaren 14an sortu zen, 2005eko azaroaren 7ra arte ez zuen Administrazio Kontseiluak onartu Fundazioak Balenciaga Museoaren 2. Fasea eraikitzeke ordura arte hitzartuak zituen indarreko kontratu eta esleipen guztiak bere gain hartzea; ordea, ez dago kontratu eta esleipen horien xehapenik, ez horren gaineko agiri juridikorik ere. Halaber, Sozietateak ere ez du bere gain hartu dituen Fundazioaren kontratuekiko inongo eranskinik izenpetu.

3. Sozietatea ez zen 2006ko ekitaldian auditatu, nahiz kontuen Auditoriari buruzko uztailaren 12ko 19/1988 Legea garatzen duen Erregelamendua onesten duen 1636/1990 EDren Xedapen Gehigarri 12.ak, diru-sarrera motaren arabera auditatua izateko obligazioari dagokion atalean, ekitaldi hori auditatua izateko obligazioari lotua zegoen.

4. Kortina-horma eta estalkia eraikitzeke kontratuaren esleipena 2006ko azaroan, 2.520 mila euroko zenbatekoarekin, bigarren tokian baloratutako eskaintzaren alde egin zen, puntuaziorik handien eskuratu zuena baino merkeagoa izategatik eta honenbestez, lehiaketako oinarrien pleguan jasotako hautaketa irizpideak urratuz. Honez gain, lehiaketa itxuraldatu zen kontratuaren xedean estalkien marka komertzial bati erreferentzia egin baitzitaion eta ez baitzuten eskaintzetan aldaerarik onartzen. (Ikus A.9).



5. Egitura metalikoa egiteko obraren esleipen hartzaileak ez du abala gauzatu; oinarri-arauen pleguen arabera 2006ko irailaren 5ean kontratua gauzatu aurretik 180 mila euroko abala aurkeztu behar zukeen Sozietatearen alde. (Ikus A.9).
6. Erantzukizun zibil orokorraren eta eraikuntzaren aseguru polizak esleitzeko espedientearen tramitazioa Cristóbal Balenciaga Fundazioak gauzatu zituen, Sozietateak 2007ko abuztuaren 8an 69 mila euroan kontratatu zituenak; hori dela eta, jasotako agirien arabera ezin egiaztatu izan dugu ezargarriak zaizkion publizitate eta lehia printzipioak gordeta gauzatu izan denik. (Ikus A.9).
7. Obrak zaintzeko zerbitzua 2007ko urriaren 25ean esleitu zen, publizitate printzipioa urratuz eta lehia mugatuz. Honez gain, eskaintzen eskarien kontratua 6 hilabetekoa eta luzagarria izango zela adierazten zen arren, azkenean urtebete luzagarriako izenpetu zen. (Ikus A.9).

Epaitegi honen ustetan, 1. paragrafoan adierazitako zalantza egoeraren ondorioak salbuetsita eta 6. eta 7. paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Sozietateak zuzentasunez bete du 2007ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

Epaitegi honen ustetan, 1. paragrafoan adierazitako zalantza egoeraren ondorioak salbuetsita eta 3tik 5era bitarteko paragrafoetan aipatutako lege haustek alde batera, Sozietateak zuzentasunez bete du 2006ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan adierazitako zalantza egoeraren ondorioen eta 2. paragrafoan aipatutako lege haustea alde batera, Sozietateak ez du bete 2005eko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.



II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Sozietateak jarduera garatzeko mendekotasun handia du Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko eta EA Eren Administrazio Orokorrarekiko, batik bat horietatik jasotzen dituen diru-laguntzen bitartez finantzatzen baita.

1. Sozietateak 2006an “Ibilgetu Materialean” 3.250 m²-ren gaineko azalera eskubidearen balio fiskala erregistratu du, “Balenciaga Museoaren 2. Fasea” eraikitzeko beharrezko zirenak, Getariako Udalak 48 mila euroan eskualdatutako “Aisialdirako jabetza” ondoan; ordea, oro har onartutako kontabilitateko printzipio eta araei jarraiki, azalera eskubide hori “Ibilgetu ez-materialean” erregistratu behar litzateke, horren egiazko balioaren arabera zehaztutako kopuru jakin batekin; alabaina, txosten hau idatzi dugun datan Sozietateak ezin eskuratu izan digu hori zehaztuko duen aditu baten txosten askerik. Ibilgetu honen kontrapartida jasotako kapitalezko diru-laguntza da, ibilgetuaren zenbateko berarekin baloratu behar litzatekeena. Eragiketa honen erregistroa 2005ean egin behar zatekeen, izan ere, ekitaldi horretan lagapenaren onespena adostu baitzen.

Obrak 2010eko azaroaren 1ean amaituko ez badira, azalera eskubidea desagertu egingo da eta Getariako Udalaren alde geratuko dira orube horren gainean egindako lanak, Sozietateari inongo diru kopururik ordaindu behar izan gabe. (Ikus A.1 eta A.2).

2. Egoera balantzearen aktiboko “Ezartzeko dauden kontu-sailak” kontuak 2006 eta 2007ko abenduaren 31n 494 mila euroko zenbatekoa jasotzen du “Abian dagoen Museoaren ordainsariak” eta “Irekierako erakusketa” kontzeptupean jasotako ordainagiriei dagokiena; ordaintzeko geratzen da 150 mila euroko ordainketa. “Ibilgetu materiala” egoera balantzeko aktiboaren idazpuruan, 2005 eta 2006an, gainera, 682 eta 150 mila euro erregistratu dira, hurrenez hurren, arestian aipatutako kontzeptuen izenean. Azpeitiko 1 zenbakiko Instrukzioko epaitegiak izapidetzeko onartu du Fiskaltzak aipatutako kontratuen esleipen hartzaile izan den enpresaren jabearen aurkako kereila, izan ere, besteak beste, dokumentuak faltsutu eta ondasunak bidegabe erabili izanaren delitua egin izan dela iritzi baitio. Txosten hau idatzi dugun datan, ez dakigu zein den kereila honen azkena eta horrek urteko kontuetan izan dezakeen eragina. (Ikus A.3).

3. 2005eko abenduaren 31n egoeraren balantzeko pasiboaren “Kapital sozialaren” kontuek 1.200 mila euroko zenbatekoa jasotzen dute eta “Eskatutako ordainketengatik akziodunak” idazpuruaren kontuek, balantzearen aktibokoak, 600 mila euroko zenbatekoa jasotzen du ordaintzeko dagoen Gipuzkoako Foru Aldundiak ordaintzeko duen kopuruari dagokiona. Kopuru hauek 2006ra arte Merkataritza Erregistroan izen eman gabeko kapitalezko zabalketa bati dagozkionez gero, 2005eko abenduaren 31n Eusko Jaurlaritzarekiko 600 euroko zorra baizik ez litzateke erregistratu behar, erakunde horrek 2005eko abenduan egindako ordainketaren kontzeptuan. (Ikus A.4).



4. 2006ko abenduaren 31ko egoeraren balantzearen pasiboko “Kapitalezko diru-laguntzak” eta aktiboko “Ezartzeko dauden kontu-sailak” kontuek 750 mila euroko zenbatekoa jasotzen dute Museoan egindako lanen kontzeptuko ordainagiri bati dagozkionak eta Fundazioaren izenean egin zena, Sozietateari fakturatu behar zitzaiokeenean. “Epe luzeko hartzekodun” eta “Ibilgetu” handiago modura erregistratu behar zatekeen, 2007an egin den legez. (Ikus A.5).

Epaitegi honen iritzira, 2007ko ekitaldiaren urteko kontuek, 1. idatz-zatiko mugaketa eta 2. idatz-zatian adierazitako salbuespenak eragin ditzakeen ondorioak alde batera, ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2007ko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.

Epaitegi honen iritzira, 2007ko ekitaldiaren urteko kontuek, 1. idatz-zatiko mugaketa eta 2. idatz-zatian adierazitako zalantzak eragin ditzakeen ondorioak eta 4. idatz-zatian adierazitako salbuespena alde batera, ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2007ko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.

Epaitegi honen iritzira, 2005eko ekitaldiaren urteko kontuek, 1. idatz-zatiko mugaketa, 2. idatz-zatian adierazitako zalantzak eragin ditzakeen ondorioak eta 3. idatz-zatian adierazitako salbuespena alde batera, ekitaldiaren jarduera ekonomikoa eta ondarearen eta 2005eko abenduaren 31n finantza egoeraren eta ekitaldian eragiketen emaitzen isla leiala erakusten dute.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jaso dira bai ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioen betetzea nabarmen eragiten ez duten hutsak, bai prozedurazko alderdiak ere, kudeaketa hobetzeko azaleratu ditugunak.

III.1 SOZIETATEA ERATZEA

Sozietatea sortzeko espedienteak, bertan esku hartzen duten erakundeek izapidetutakoak, honako huts hauek azaleratu dituzte:

- Ez dago behar bezain justifikatua Sozietatea sortzeko izan daitekeen interes orokorra, izan ere, ez baita zehazten zein eratan lagunduko duen honek ezarritako helburuak lortzen. Sozietatearen helburu modura Museoaren bigarren fasea eraikitzeko laguntza publikoak erakunde publikoen alde patrimonializatzea jasotzen da; ordea, ez da aintzat hartzen eraikina, modu eskusiboan, Getariako Udalari itzuliko zaiola. Are gehiago, GFaren Diputatuen Kontseiluaren Erabakian jasotako justifikaziotik komenigarriagoa irizten zaio Fundazioan parte hartzea Sozietatea sortzea baino.
- Ez dira eraikinaren eraikuntzari aurre egiteko bestelako aukerak aztertu eta Sozietate Mugatu bat sortzeko aukera egin dute, irabazi asmorik gabekoa izan arren; honenbestez, ez dirudi merkataritza molde hori denik egokiena.
- Ez da zehazten Fundazioak Museoa zein baldintzetan kudeatuko duen eraikuntza amaitzen denean, eta administrazio parte hartzaileek ere ez dute Sozietateak garatuko dituen jarduerak zehaztuko dituen hitzarmen edo kontraturik izenpetu.

III.2 DIRU-LAGUNTZAK

Jasotako diru-laguntzen justifikazioak horiekin finantzatutako inbertsioak baino txikiagoak dira, Sozietateak BEZ diruz lagundutako zenbatekotzat hartzen baitu, eta gainera, bi justifikazio ezberdinetan ordainagiri bera barne hartu baita. Honenbestez, GFak emandako diru-laguntzetan justifikatu gabe leudeke 768 mila euro eta Eusko Jaurlaritzak emandakoetan, berriz, justifikatzeke daude 316 mila euro. Nolanahi dela ere, egindako inbertsioen zenbatekoa emandako diru-laguntzak baino handiagoa izan da beti eta honenbestez, aurrez adierazitako kopuruak justifikatu ezinik ez zegoen.



III.3 DIRUZAINNTZA

2007an zehar finantza gastuen kontzeptuan 76 mila euro ordaindu dira urteko % 12koa baino interes tipo altuagoarekin, ordainagiriaren ordainketan izandako atzerapenengatik. Ordainagiri hauen gerorapenean zehar batzuetan kreditu kontua oso-osorik erabili gabe izan da eta beste aldi batzuetan, berriz, Moneta Azokaren Aktiboetan Inbertsio Fondo batean inbertitutako baliabideak izan dituzte. Likidezia eza duteneko aldiak sumatzea bideratuko duten diruzaintzako aurreikuspenak egin behar lirateke, hartara Sozietatearentzat hain garestiak ez diren baliabideak erabili ahal izateko.

2005 eta 2006an zehar Gerenteak soilik zuen baimendutako sinadura Sozietatearen kontu korronteak baliatzeko. 2007ko irailean, ordea, prozedura aldatu zen eta hiru pertsonari eman zitzaizen baimena, gutxienez horietako biren sinadura bateratua eskatuaz.

III.4 KONTULARITZAKO KONTROLA

2007ko ekitaldiaren kontularitzako idazpenen zenbaketan jauziak daude, hori justifikatuko duen dokumentaziorik batere ez dagoela.

2006 eta 2007ko ekitaldietako urteko kontuak Akziodunen Batzorde Orokorak onetsi ditu eta Merkataritza Erregistroan gordailatzeko epea kanpo aurkeztu dira, Erantzukizun Mugatuko Baltzuen martxoaren 23ko 2/1995 Legearen 45. artikulua eta abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuak onetsitako Sozietate Anonimoen Legearen (SAL) Testu Bateratuaren 218. artikulua ezarritako epearekiko.

III.5 KONTRATAZIOA

Sozietateak esleitutako 4 kontratu berrikusi dira eta Fundazioak esleitutako 9 kontraturen exekuzioa (ikus A.8 eta A.9).

- Nahiz obrak egiteko lizentzia eskabidea 2005eko ekainaren 2koa den, emakida ez zen 2007ko maiatzaren 11ra arte gauzatu, jada 6,6 milioi euroko obrak exekutatuak zeudela.
- Horma-kortina eta estalkia 6 hilabeteko epearekin kontratatu zen, atzeraldi nabarmenak izan dituela. Honela, bada, 2008ko maiatzean, 9 hilabetetik areagoko atzeraldia metatu duenean, obra partzialki hartu zen eta gainerakoa eten, baina etete aktarik egin gabe, oinarri-arauen pleguak eskatzen duen legez.
- Horma-kortinaren eraikitze eta zimendatze lanak 2005ean esleitu zituen Cristóbal Balenciaga Fundazioak, hurrenez hurren, 135 eta 1.815 mila euroko zenbatekoarekin. Ordea, ez zuen esleipen hartzaileak inongo abalik aurkeztu 2007ko urriaren 31ra arte, ia-ia obraren amaiera datara arte, alegia. Gainera, eustormaren obraren exekuzioak % 317an gainditu du esleipenaren zenbatekoa.
- Aztertu ditugun espedienteetan ez da ageri esleipenen jakinarazpena eta horrek esleipendun izan ez diren lehiatzaileen errekurritzeko gaitasuna eta inpartzialtasunaren kontrola izatea mugatzen du.



- Obra eraikuntza-asegururik gabe egon da 2007ko abuztuaren 8ra arte, une hartan obraren exekuzioa 9,5 milioi eurokoa izanik. Berebat, Sozietateak ere ez zuen ordura arte erantzukizun zibileko asegururik izan.
- Sozietateak 2007ko maiatzean 60 mila euroko bi ordainagiri erregistratu eta ordaindu ditu “Museografia Proiektua” kontzeptupean, horretarako izenpetutako kontraturik izan gabe. 2007ko urrian jaulkitako hirugarren ordainagiri bat, 26 mila eurokoa, atzera bota zuen Sozietateak, lanak Fundazioarentzat egin zirela iritzi ziolako (ikus A.3).

III.6 ONDOKO GERTAKARIAK

Txosten hau idatzi dugun datan, Cristóbal Balenciaga Museoaren 2. Faseko lanak egiteratzen ari dira. 2008ko maiatza eta Abendua bitartean lanak etenda egon ziren. 2008ko maiatzean “Museoaren barne-diseinuko lanen proiektu eta zuzendaritzaren aholkularitza eta laguntza teknikoa” kontratatu zen 192 mila euroko zenbatekoarekin eta 2008ko abenduan, “Museoaren barne aldeko egokitzapena, akaberak eta kanpo aldeko urbanizazioa”, 3.867 mila euroko zenbatekoarekin.

Sozietatearen kontularitzako erregistroen arabera, 2008ko urtarrilaren 1etik 2009ko ekainaren 30era bitarteko exekuzioa 1.679 mila eurokoa izan da eta horrek “Abian dagoen obra”ren zenbatekoa 14.210 mila eurotara igotzen du. Halaber, aldi horretan zehar Sozietateak Eusko Jaurlaritzak emandako 3 milioi euroko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako milioi bat euroko diru-laguntzak erregistratu ditu, guztira kapitalezko diru-laguntzen kontzeptuan erregistratutakoa 15.336 mila eurokoa izan delarik.

Aurreko datuak aintzat hartuta, obren kostua ordainsariak barne direla 21 milioi eurokoa izango da eta 2010erako amaitua egotea aurreikusi da, 2009ko abuztuan Obra Zuzendaritzak jaulkitako obra egoeraren gaineko txostenari jarraiki.



IV. URTEKO KONTUAK 2005-2007

EGOERAREN BALANTZEA		Mila euro		
	2005	2006	2007	
AKTIBOA	2.004	6.538	12.594	
IBILGETUA				
Establezimendu gastuak.....	9	21	16	
Ibilgetu materiala (A.1).....	1.995	6.517	12.578	
AKTIBO ERABILKORRA	1.310	3.240	4.001	
Akziodunak galdatutako gastuengatik	600	0	0	
Zordunak (A.3).....	312	3.220	3.977	
Aldi bateko finantza inbertsioak (A.6)	394	18	0	
Diruzaintza	4	2	24	
AKTIBOA GUZTIRA	3.314	9.778	16.595	
<hr/>				
PASIBOA	2005	2006	2007	
BEREZKO FONDOAK	1.202	1.189	1.140	
Kapital harpidetua (A.4).....	1.203	1.203	1.203	
Aurreko ekitaldietako emaitzak.....	0	(1)	(14)	
P eta G	(1)	(13)	(49)	
DIRU-SARRERAK, HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKOAK	0	3.511	11.336	
Kapital diru-laguntzak (A.2)	0	3.511	11.336	
HARTZEKOD. E/L	1.425	1.425	0	
Bestelako hartzek.....	1.425	1.425	0	
HARTZEKOD. E/L (A.5)	687	3.653	4.119	
Zorrak, kreditu erakundeekin	0	141	1	
Hartzekodun komertzialak	72	8	31	
Bestelako zor ez merkataritzakoak	615	3.504	4.087	
PASIBOA GUZTIRA	3.314	9.778	16.595	
<hr/>				
GALDU-IRABAZIEN KONTUA		Mila euro		
	2005	2006	2007	
USTIAPEN-SARRERAK	0	0	0	
USTIAKETA GASTUAK	(1)	(12)	(18)	
Ibilgetuen amortizazioetarako hornidurak	0	(3)	(5)	
Bestelako ustiaketa gastuak	(1)	(9)	(13)	
USTIAKETA MOZKINA/GALERA	(1)	(12)	(18)	
Finantza sarrerak.....	0	3	2	
Finantza gastuak	0	(4)	(9)	
EMAITZA FINANTZARIOAK	0	(1)	(7)	
Aparteko diru-sarrerak	0	0	0	
Aparteko gastuak (A.7)	0	0	(24)	
APARTEKO EMAITZAK	0	0	(24)	
ZERGA AURRETIKO MOZKINA/GALERA	(1)	(13)	(49)	
EKITALDIAREN MOZKINA / GALERA	(1)	(13)	(49)	



I. INTRODUCCIÓN

Este informe de fiscalización de la actividad económico-financiera de Berroeta Aldamar, SL (en adelante la Sociedad) de los ejercicios 2005, 2006 y 2007, se realiza conforme a la Ley 1/88 del Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, y está incluido en el Programa Anual de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal a petición de la Comisión de Economía, Hacienda y Presupuestos del Parlamento Vasco.

La Sociedad se constituyó el 14 de abril de 2005 con un capital social de 3.300 euros, suscritos a partes iguales por la Diputación Foral de Gipuzkoa (en adelante, DFG), la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi (en adelante, CAE) y el Ayuntamiento de Getaria.

Su objeto social es la promoción de inmuebles y obras de rehabilitación, sustitución, conservación y mantenimiento de los edificios ubicados o que se vayan a ubicar en los terrenos denominados Palacio Aldamar, integrados en el Sector 7 de las Normas Subsidiarias del Planeamiento de la Villa de Getaria y todo ello con destino a la instalación y ubicación del Museo Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioa.

La duración de la Sociedad es el plazo de la concesión administrativa de cesión gratuita de los inmuebles denominados Palacio Aldamar y sus pertenecidos. Esta cesión fue acordada por el Pleno del Ayuntamiento de Getaria en sesiones de 3 de noviembre de 2005 y de 25 de abril de 2006, por un periodo que en principio se extiende hasta el 22 de diciembre de 2029, prorrogable de mutuo acuerdo, y no pudiendo exceder en ningún caso del 5 de mayo de 2078, para que sirva como sede permanente del “Museo Balenciaga”.

Las iniciativas para la creación del Museo Cristóbal Balenciaga se remontan a 1999, creándose el 7 de octubre de 1999 la Fundación Cristóbal Balenciaga, formada por varios patronos con carácter individual y dos instituciones públicas: el Ministerio de Cultura y el Ayuntamiento de Getaria. La iniciativa de construcción del museo se conformó a partir de un proyecto en dos fases, presentado por Hemen Art SLU. La primera fase abarca desde el año 2000 hasta 2002, y se concreta en la remodelación y rehabilitación del Palacio Berroeta-Aldamar. En julio de 2004 se presenta en el Colegio Oficial de Arquitectos Vasco Navarro (COAVN) el proyecto básico correspondiente a la segunda fase, consistente en la edificación de un nuevo edificio adosado al Palacio.

El 14 de abril de 2005, de forma simultánea con la constitución de la Sociedad se nombra Gerente de la misma al que por entonces era Vicepresidente ejecutivo de la Fundación.

El Consejo de Administración de la Sociedad se reunió por primera vez el 7 de noviembre de 2005, acordando que ésta se subrogara en los contratos y adjudicaciones en vigor, comprometidos por la Fundación, relacionados con la construcción de la segunda fase del Museo.

En marzo de 2007 se aceptó la dimisión del Gerente de la Sociedad, y en noviembre de ese mismo año la Fundación y la Sociedad presentaron una denuncia contra el mismo ante el Ministerio Fiscal de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa.

El 18 de abril del 2008 el Pleno del Parlamento Vasco aprobó la creación de una comisión especial de investigación, para investigar las irregularidades detectadas en torno al futuro



Museo Balenciaga. El Pleno de 22 de diciembre de 2008 aprobó el dictamen presentado por la comisión.

El trabajo ha consistido en el análisis de los siguientes aspectos, relativos exclusivamente a la sociedad Berroeta Aldamar, SL:

- Legales: cumplimiento de la normativa que resulte de aplicación tanto en la contratación administrativa para la adquisición de bienes y servicios, como en las subvenciones recibidas.
- Contables: conformidad de la documentación financiera presentada por la Sociedad con los principios contables que resulten de aplicación.
- Aspectos de Gestión: aunque el alcance del trabajo no incluye un análisis sobre la eficacia y eficiencia del gasto público, las deficiencias encontradas en este sentido se describen en un apartado específico, junto a las recomendaciones para su mejora.

Para la realización del trabajo se ha utilizado el informe de auditoría de las cuentas anuales del ejercicio 2007 efectuado por auditores externos, revisando los papeles de trabajo soporte de dicho informe y realizando las pruebas de auditoría adicionales que se han considerado necesarias.



II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

1. La Sociedad presentó el 27 de noviembre de 2007, junto con la Fundación Cristóbal Balenciaga, una denuncia ante la fiscalía de la Audiencia Provincial de Gipuzkoa contra el que fue Gerente de la Sociedad desde su constitución hasta el 8 de marzo de 2007 y Vicepresidente de la Fundación de 1999 a 2007, por diversas actuaciones realizadas entre 2001 y 2005 (pagos por trabajos no realizados, facturas manipuladas,...) relacionadas con el apoderado y accionista único de Hemen Art, SLU sociedad contratada por la Fundación para la redacción del diseño de construcción del Museo y del proyecto de interiorismo.

El Ministerio Fiscal presentó el 3 de noviembre de 2008 una querrela contra el Gerente de la Sociedad, contra el propietario de Hemen Art, SLU y contra el adjudicatario del contrato de “Desarrollo, seguimiento y control del proyecto de ejecución”, por los presuntos delitos de administración desleal, apropiación indebida, falsedad documental, delito societario, intrusismo y malversación de caudales públicos. Dicha querrela fue admitida a trámite el 17 de noviembre de 2008 por el Juzgado de Instrucción número 1 de Azpeitia.

La Sociedad Berroeta Aldamar, SL ha abonado entre 2005 y 2007 en concepto de honorarios 626 miles de euros (IVA incluido) a la empresa y al adjudicatario antes mencionados. (Ver A.1).

2. Aunque la Sociedad fue constituida el 14 de abril de 2005 no es hasta el 7 de noviembre de 2005, cuando el Consejo de Administración aprueba subrogarse en todos los contratos y adjudicaciones en vigor comprometidos hasta la fecha por la Fundación para la construcción de la 2ª Fase del Museo Balenciaga, pero sin que exista un detalle de cuáles son estos contratos y adjudicaciones, ni se haya suscrito documento jurídico alguno al respecto. La Sociedad tampoco ha firmado ningún anexo a los contratos de la Fundación en que se ha subrogado.

3. La Sociedad no fue auditada en el ejercicio 2006 pese a que según la Disposición Adicional 12ª del RD 1636/1990 por el que se aprueba el Reglamento que desarrolla la Ley 19/1988, de 12 de julio, de Auditoría de Cuentas, y atendiendo al apartado relativo a la obligación de auditar por tipo de ingresos, dicho ejercicio estaba sujeto a la obligación de ser auditado.

4. La adjudicación del contrato de construcción del muro cortina y cubierta en noviembre de 2006, por importe de 2.520 miles de euros, fue realizada a la oferta valorada en segundo lugar por resultar más barata que la que obtuvo mayor puntuación, incumpliendo, por tanto, los criterios de selección establecidos en el pliego de bases del concurso. Además, se desvirtuó la concurrencia al hacer referencia en el objeto del contrato a una marca comercial de cubierta y no admitir variantes en las ofertas. (Ver A.9).



8. El adjudicatario de la obra para la realización de la estructura metálica no ha formalizado el aval, que según el pliego de bases debía constituir antes de la formalización del contrato el 5 de septiembre de 2006, a favor de la Sociedad por importe de 180 miles de euros. (Ver A.9).
9. La tramitación del expediente de adjudicación de las pólizas de seguro de responsabilidad civil general y de seguro de construcción, contratadas por la Sociedad el 8 de agosto de 2007 por importe de 69 miles de euros, fue realizada por la Fundación Cristóbal Balenciaga, por lo que de la documentación recibida no nos ha sido posible verificar que se haya efectuado respetando los principios de publicidad y concurrencia que le son de aplicación. (Ver A.9).
10. El servicio de vigilancia de las obras se adjudicó el 25 de octubre de 2007 incumpliendo el principio de publicidad y limitando la concurrencia. Además, aunque en la petición de ofertas se indicaba una duración del contrato de 6 meses prorrogables, finalmente se firmó por un año prorrogable. (Ver A.9).

En opinión de este Tribunal, excepto por los efectos que pudiera tener la incertidumbre señalada en el párrafo 1 y los incumplimientos que se detallan en los párrafos 6 y 7, la Sociedad ha cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera durante el ejercicio 2007.

En opinión de este Tribunal, excepto por los efectos que pudiera tener la incertidumbre señalada en el párrafo 1 y los incumplimientos que se detallan en los párrafos 3 a 5, la Sociedad ha cumplido razonablemente la normativa legal que regula su actividad económico-financiera durante el ejercicio 2006.

En opinión de este Tribunal, debido a los efectos que pudiera tener la incertidumbre señalada en el párrafo 1 y al incumplimiento que se detalla en el párrafo 2, la Sociedad no ha cumplido la normativa legal que regula su actividad económico-financiera durante el ejercicio 2005.



II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

La Sociedad presenta una fuerte dependencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la Administración General de la CAE para el desarrollo de su actividad, al financiarse fundamentalmente con las subvenciones que recibe de las mismas.

1. La Sociedad ha registrado en 2006 en “Inmovilizado material” el valor fiscal del derecho de superficie sobre 3.250 m², precisos para la construcción de la “2ª Fase del Museo Balenciaga” contiguos a la “Posesión de recreo”, transmitido por el Ayuntamiento de Getaria, por importe de 48 miles de euros, cuando de acuerdo con los principios y normas de contabilidad generalmente aceptadas, dicho derecho de superficie debe ser registrado en “Inmovilizado inmaterial”, por un importe determinado en función del valor venal del mismo, sin que a la fecha de este informe la Sociedad nos haya podido facilitar informe pericial independiente que lo determine. La contrapartida de este inmovilizado es una subvención de capital recibida, que debiera valorarse por el mismo importe que el inmovilizado. El registro de esta operación debería haberse efectuado en 2005, dado que en dicho ejercicio se acordó la aceptación de la cesión.

En el caso de que las obras no estuvieran finalizadas para el 1 de noviembre de 2010, el derecho de superficie quedará extinguido, quedando a favor del Ayuntamiento de Getaria las obras ejecutadas sobre dicho solar, sin que tenga que abonar cantidad alguna a la Sociedad. (Ver A.1 y A.2).

2. La cuenta “Partidas pendientes de aplicación” del activo del balance de situación al 31 de diciembre de 2006 y 2007 recoge un importe de 494 miles de euros correspondiente a facturas recibidas en concepto de “Honorarios Museo en curso” y “Exposición inaugural”, quedando pendiente de pago un importe de 150 miles de euros. En el epígrafe del activo del balance de situación “Inmovilizado material” se han registrado, además, 682 y 150 miles de euros en 2005 y 2006, respectivamente, por los conceptos antes señalados. El Juzgado de instrucción número 1 de Azpeitia ha admitido a trámite la querrela de la Fiscalía contra el propietario de la empresa adjudicataria de los contratos citados, por considerar que puede existir un presunto delito de falsedad documental y malversación de caudales públicos, entre otros. A la fecha de este informe, se desconoce el desenlace final de esta querrela y su efecto sobre las cuentas anuales. (Ver A.3).

3. Las cuentas “Capital social” del pasivo del balance de situación al 31 de diciembre de 2005 recoge un importe de 1.200 miles de euros, y “Accionistas por desembolsos exigidos” del activo del balance recoge un importe de 600 miles de euros por la parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa pendiente de desembolso. Dado que estos importes se refieren a una ampliación de capital no inscrita en el Registro Mercantil hasta 2006, al 31 de diciembre de 2005 sólo debería estar registrada una deuda con el Gobierno Vasco por 600 miles de euros, por el abono realizado por dicha entidad en diciembre de 2005. (Ver A.4).



4. Las cuentas “Subvenciones de capital” del pasivo y “Partidas pendientes de aplicación” del activo del balance de situación al 31 de diciembre de 2006 recogen un importe de 750 miles de euros, que corresponde a una factura por obras realizadas en el Museo, que fue extendida a nombre de la Fundación, cuando debió haber sido facturada a la Sociedad. Se debería haber registrado como “Acreedores a corto plazo” y como mayor “Inmovilizado”, tal y como se ha realizado en 2007. (Ver A.5).

En opinión de este Tribunal, excepto por la limitación del párrafo 1 y el efecto que pudiera tener la incertidumbre del párrafo 2, las cuentas anuales del ejercicio 2007, expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio, así como la imagen fiel de su patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2007 y los resultados de sus operaciones en el ejercicio.

En opinión de este Tribunal, excepto por la limitación del párrafo 1, el efecto que pudiera tener la incertidumbre del párrafo 2, y la salvedad señalada en el párrafo 4, las cuentas anuales del ejercicio 2006, expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio, así como la imagen fiel de su patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2006 y los resultados de sus operaciones en el ejercicio.

En opinión de este Tribunal, excepto por la limitación del párrafo 1, el efecto que pudiera tener la incertidumbre del párrafo 2, y la salvedad señalada en el párrafo 3, las cuentas anuales del ejercicio 2005, expresan en todos los aspectos significativos la actividad económica del ejercicio, así como la imagen fiel de su patrimonio y de la situación financiera de la Sociedad al 31 de diciembre de 2005 y los resultados de sus operaciones en el ejercicio.



III. CONSIDERACIONES SOBRE SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 CONSTITUCIÓN DE LA SOCIEDAD

Los expedientes para la creación de la Sociedad, tramitados por las instituciones participantes en la misma, ponen de manifiesto las siguientes deficiencias:

- No está suficientemente justificado el interés general a cuya satisfacción responde la creación de la Sociedad, puesto que no se concreta la forma en que ésta va a contribuir a la consecución de los objetivos establecidos. Se detalla como objetivo de la Sociedad patrimonializar a favor de las instituciones públicas las ayudas para la construcción de la segunda fase del Museo, y sin embargo, no se toma en consideración el hecho de que el edificio va a revertir, en exclusiva, al Ayuntamiento de Getaria. Incluso en el Acuerdo del Consejo de Diputados de la DFG, de la justificación indicada se deduce como más conveniente la participación en la Fundación que la creación de la Sociedad.
- No se analizan otras alternativas posibles para afrontar la construcción del edificio, optándose por la constitución de una Sociedad Limitada, aunque sin ánimo de lucro, por lo que no parece que dicha figura mercantil sea la más adecuada.
- No se concretan las condiciones en las que el Museo será gestionado por la Fundación cuando acabe su construcción, ni tampoco se ha firmado un convenio o un contrato entre las administraciones participantes especificando las actividades a desarrollar por la Sociedad.

III.2 SUBVENCIONES

Las justificaciones de las subvenciones recibidas son inferiores a las inversiones financiadas con las mismas, dado que la Sociedad considera el IVA como importe subvencionado, y además, se ha incluido una factura en dos justificaciones diferentes. Por tanto, en las subvenciones concedidas por la DFG estarían sin justificar 768 miles de euros y en las concedidas por el Gobierno Vasco falta justificar 316 miles de euros. No obstante, el importe de las inversiones efectuadas es superior, en todo momento, a las subvenciones concedidas, por lo que hubiera sido posible justificar los importes antes señalados suficientemente.



III.3 TESORERIA

Se han abonado durante 2007 en concepto de gastos financieros 76 miles de euros, por retrasos en el pago de facturas, a un tipo de interés superior al 12% anual. Durante el aplazamiento de estas facturas han existido periodos de tiempo en que la cuenta de crédito no estaba dispuesta en su totalidad, y periodos en los que se disponía de recursos invertidos en un Fondo de Inversión en Activos del Mercado Monetario. Se deberían elaborar previsiones de tesorería que permitan detectar periodos de falta de liquidez, para así poder disponer de recursos menos gravosos para la Sociedad.

Durante 2005 y 2006 únicamente el Gerente tenía firma autorizada para disponer de las cuentas corrientes de la Sociedad. En septiembre de 2007 se modifica el procedimiento autorizándose a tres personas, y exigiéndose la firma mancomunada de al menos dos de ellas.

III.4 CONTROL CONTABLE

Existen saltos en la numeración de los asientos contables del ejercicio 2007, sin que figure documentación justificativa al respecto.

Las cuentas anuales de los ejercicios 2006 y 2007 han sido aprobadas por la Junta General de Accionistas y se han presentado en el Registro Mercantil para su depósito fuera del plazo establecido en los artículos 45 de la Ley 2/1995, de 23 de marzo, de Sociedades de Responsabilidad Limitada y 218 del Texto Refundido de la Ley de Sociedades Anónimas (LSA), aprobado por Real Decreto Legislativo 1564/1989, de 22 de diciembre.

III.5 CONTRATACIÓN

Se han revisado 4 contratos adjudicados por la Sociedad así como la ejecución de 9 contratos adjudicados por la Fundación (Ver A.8 y A.9).

- Aunque la solicitud de la licencia de obras data del 2 de junio de 2005, la concesión no se produjo hasta el 11 de mayo de 2007, cuando se llevaban ya ejecutadas obras por importe de 6,6 millones de euros.
- La realización del muro cortina y cubierta fue contratada con un plazo de ejecución de 6 meses, habiendo sufrido retrasos significativos. Así, en mayo de 2008, cuando acumula un retraso superior a los 9 meses, se efectúa una recepción parcial de la obra y se paraliza el resto, aunque sin levantar un acta de suspensión como exige el pliego de bases.
- Las obras de construcción del muro de contención y cimentación fueron adjudicadas por la Fundación Cristóbal Balenciaga en 2005 por importes de 135 y 1.815 miles de euros respectivamente. Sin embargo, no se formalizó ningún aval por parte del adjudicatario, hasta el 31 de octubre de 2007, coincidiendo prácticamente con el final de dichas obras. Además, la ejecución de la obra del muro de contención ha superado en un 317% el importe de la adjudicación.



- En los expedientes analizados no consta la notificación de las adjudicaciones, de forma que se limita la capacidad de recurso y control de imparcialidad a los licitadores no adjudicatarios.
- La obra ha permanecido sin seguro de construcción hasta el 8 de agosto de 2007 momento en que la ejecución de la obra ascendía a 9,5 millones de euros. La Sociedad tampoco dispuso hasta dicha fecha de seguro de responsabilidad civil.
- La Sociedad ha registrado y abonado en mayo de 2007 dos facturas en concepto de “Proyecto museográfico”, por importe de 60 miles de euros (IVA incluido), sin existir contrato firmado. Una tercera factura emitida en octubre de 2007, por importe de 26 miles de euros, fue rechazada al entender la Sociedad que los trabajos correspondientes habían sido realizados para la Fundación (ver A.3).

III.6 HECHOS POSTERIORES

A la fecha de realización de este informe, las obras de la 2ª Fase del Museo Cristóbal Balenciaga continúan en ejecución. Entre mayo y diciembre de 2008 la obra permaneció parada. En mayo de 2008 se contrató la “Consultoría y asistencia técnica del proyecto y dirección de las obras de interiorismo del Museo” por 192 miles de euros, y en diciembre de 2008 el “Acondicionamiento interior, acabados y urbanización exterior del Museo” por 3.867 miles de euros.

